

# **Peñaflorida-Usandizagako BHIko pertzepzioak oinarri. LOMLOEren aplikazioarekin eta Unibertsitaterako Sarbide berriarekin batera aldatu beharrekoak.**

## **Olatz Aranguren Juaristi**

### **Abstract**

Lan honen bidez 2023-2024 ikasturtean Donostiako Peñaflorida-Usandizaga BHI Institutuan irakasle aritutako bi irakasleren pertzepzioak jaso dira *Focus Group* erdi egituratuaren bidez. Ikertzailea ere Bigarren Batxilergoko irakasle izanik, Motibazio politiko indarkeria 2. Batxilergoko klaseetan lantzen den moduari buruzko hausnarketa batzuk jaso dira. Ondoren egoeraren azterketa bat egin da EAEn garatu diren Hezkuntza moduluak aurkeztuz eta hezkuntzan gai gatazkatsuak lantzeak duen garrantzia azpimarratuz.

Bi irakasleekin izandako elkarrizketatik irakasleek gaia ikasgelan lantzerakoan sentitzen duten bakardadea, babesik eza eta formakuntza egokirik ez izatea aipatu dira. Erakundeetatik prestatutako hezkuntza moduluen berri ere ez dute izan nahiz eta irakasle gazteak izan. Aldi berean ikasleek motibazio politikoko indarkeria lantzerakoan erakusten duten interesa nabarmentzen dute eta Historia irakasle gisara iragan traumatikoaren gaia ikasgeletan lantzeko sentitzen duten ardua. Hala ere, 2. Batxilergoko ikasgaiari astean ordu bat gutxitzeak eta Unibertsitateko Sarbide Frogak duen pisuak gaia lantzea mugatzerakoan azpimarratu dute.

Azkenik, indarkeria politikoa 2. Batxilergoan lantzeko, ikasleen heldutasun mailaz baliatzeko LOMLOEren egokitzapena aplikatzeari, gaitasunetan oinarritutako hezkuntza sendotzeari, ikaslea bere ikaskuntzaren protagonista izaten lagundu dezaketen metodologia aktiboei eta instituzioetatik lantzen diren material eta hezkuntza moduluak dibulgatzeari ematea komeni den bultzada azpimarratu da, ikerketan parte hartu dituen irakasleen ekarpenak adituek esandakoarekin lotuz.

**Hitz gakoak:** motibazio politikoko indarkeria, gai gatazkatsuak ikasgeletan, iragan traumatikoen kudeaketa, gaitasunetan oinarritutako Hezkuntza, Bakerako Hezkuntza.

## 1. Sarrera

Gaur egun iragan traumatikoak Hezkuntzan egoki lantzeak duen garrantzia aho batez aitortzen da. EAEn indarrean dagoen curriculumaren arabera DBH 4 eta 2. Batxilergoan landu behar da Euskal Herriak izandako iragan traumatikoa, batez ere Gizarte edo Historia irakasgaien.

Komunikazio honen bidez 2023-24 ikasturtean Peñaflorida-Usandizaga BHI lanean aritutako irakasle batzuen pertzepzioak jasotzeaz gain, hezkuntzaren eraldaketa aro honetan indarra jartzea komeni den zenbait puntu azpimarratu nahi dira. Iragan traumatikoa lantzea aberasgarri izan daiteke bizi izan duen gizartearentzat baina batez ere etorkizuna eraikiko duten ikasleentzat.

Ikerketa honetan motibazio politikoko indarkeria, indarkeria politikoa edo Euskal Herriaren iragan traumatikoa bezalako kontzeptuak agertzen dira batez ere. Kontzeptu guzti hauekin Euskal Herrian, Frantzia eta Espainian, euskal identitatearen defentsarekin lotutako indarkeriaren eta indarkeria honi erantzuteko erabili zen indarkeriari egiten zaio erreferentzia, 1960tik 2010eko hamarkadara arte Komando Autonomoak, ETA m, ETA pm, Batallon Vasco Español, Triple A, GAL, FRAP, GRAPO, TRIL, MIL eta Karlisten taldea bezalako talde armatuek eta Frantzia eta Espainiako estatu egiturek hauei aurka egiteko gauzatutako indarkeria izendatzeko erabili dira.

Motibazio politikoko indarkeria zer izan zen, nola sortu zen, zer eragin eta zer ondorio izan zituen, zer nolako dinamika jarraitu zuen, zer egin daitekeen halako joerak etorkizunean identifikatzen direnean dinamika hori gerarazteko... Hauek guztiak lantzea interesgarria izateaz gain, belaunaldi gazteentzat iragan traumatiko honen bidez bildutako erresilientzia eta jakinduria ondare bihur daitezke euskal gizarte sendo, anitz eta izate desberdinekiko errespetuan oinarritutakoa eraiki nahi bada.

Horretarako Motibazio politikoko indarkeria Hezkuntzan lantzeko adituek orain arte egin dituzten ekarpenak aipatuko dira. Ondoren, 2023-24 ikasturtean Batxilergoko 1 eta 2 mailetako zenbait Historia irakasle elkartu eta *Focus Group* erdi egituratu baten bidez ateratako emaitzarik esanguratsuenak eskainiko dira komunikazio honen mamian. Azkenik Hezkuntza eraldatzen ari den garai honetan kontuan hartu beharreko zenbait hobekuntza proposatu nahi dira.

## 2. Gaiaren egoeraren azterketa

Bakearen Hezkuntzak garapen berezia izan du euskal lurraldeetan. Frankismo garaian Euskararen erabilera debekatu zen eta euskal identitatearekin zerikusia zuen oro ezabatzen saiatu. Gertaera hauen ondorioz erantzun antifrankista sendo bat garatu zen alderdi politiko eta

sindikalen bidez. Aldi berean errepresioari bortizki erantzuten zioten talde armatuak sortu ziren. Horien artean ETA m taldeak gatazka konpontzeko bide bakartzat biolentzia erabili izan du 2011ko urriaren 20 arte. Estatuko zenbait egiturek ere biolentzia erabili zuten talde armatu horiek desagerrarazteko. Testuinguru horretan Bakea bake negatiboaren kontzeptuarekin lotu izan da, bortizkeria zuzenik ez egotearekin nahiz eta bortizkeria hori sustengatzen zuten egiturak eta kulturak bere horretan iraun<sup>1</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoko kasuan (hemendik aurrera EAE), 2005-2009 legegintzaldian “Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana” onartu zen eta horren barruan *Bakerako Urratsak* eta *Marka uzten diguten istorioak* unitate didaktikoak garatu. Horretan oinarrituta esperientzia pilotuak burutu ziren 2006-2008 artean antzerki foruma eta biktimen testigantzak erabiliz. 2011an *Biktima Hezitzaileak* programa modu esperimentalean lantzen hasi ziren eta horretarako ETAREN eta beste erakunde batzuen (GAL, BVE...) zenbait biktima aukeratu eta trebatu ziren DBH 4 eta Batxilergoko geletan beraiek bizi izandakoa kontatu zezaten. Garapen horren ondorio bezala, 2013-2017 legegintzaldian abiatu zen *Adi-adian* programa. 2017- 2020 legegintzaldian proiektua berriro eta bultzatu egin zen eta berrikuntza bezala unibertsitateko ikasleei (Bigarren Hezkuntzan irakasle izateko Masterra egiten duten batzuei ere) biktimen testigantzak entzutea eskaini zitzaion. Programa honen oinarrian gaitasunetan heztea, hezkuntza curriculumen markoan txertatu ahal izatea eta giza eskubideen errespetutik abiatzea daude, Europako orientabide estrategikoei jarraituz<sup>2</sup>.

*Adi-adian* moduluaren proposamena ikasleei indarkeriak eta giza eskubideen urraketen sufrimenduari bizikidetzaz sustatuz erantzun dioten pertsonen gogoetak gerturatzea da, ikus-entzunezko edo aurrez aurreko testigantza bidez<sup>3</sup>. Gogorak (Eusko Jaurlaritzaren barruko Memoria, Bizikidetzaz eta Giza Eskubideen Institutua) 2021-2024 bitarteko zehaztutako ekimenen artean *Adi-adian* proiektuarekin jarraitzea eta oraintsuko memoria gutxika hezkuntza-curriculumean sartzea egon dira<sup>4</sup>. Guzti honetaz gain Gogorak *Herenegun!*

---

<sup>1</sup> EUSKO JAURLARITZA: *Educación para la convivencia y la paz en los centros escolares de la Comunidad Autónoma del País Vasco*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004, <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/liburua/bizikidetzaz-eta-bakearen-aldeko-heziketa-eaeko-ikastetxeetan-educacion-para-la-convivencia-y-la-paz-en-los-centros-escolares-de-la-capv/>

<sup>2</sup> Lehendakaritza EUSKO JAURLARITZA: *Adi-adian Hezkuntza modula*, [https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora\\_documentoak/eu\\_def/Adi-adian-hezkuntza-moduloa.pdf](https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_documentoak/eu_def/Adi-adian-hezkuntza-moduloa.pdf)

<sup>3</sup> *Ibid.*

<sup>4</sup> Gogora Institutua EUSKO JAURLARITZA: *2021-2024 Jarduketa-plana*, [https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora\\_documentoak/eu\\_def/Jarduketa-Plana-2021-2024-weberako.pdf](https://www.gogora.euskadi.eus/contenidos/informacion/gogora_documentoak/eu_def/Jarduketa-Plana-2021-2024-weberako.pdf)

Hezkuntza programa aurkeztu zuen 2018ko urriaren 11an. Programa horretarako landutako material didaktikoa 5 ikus-entzunezko eta eduki espezifikoak duten koadernok osatzen dute<sup>5</sup>. Edukiari eta lantzeko moduari buruzko adostasunera iristea zaila izan zen ondorengo urteetan, batez ere alderdi politikoaren artean. Ikastetxe batzuetan esperientzia pilotu gisa garatu izan da 2021-2024 bitartean.

Iragan traumatikoaren edo motibazio politikoko indarkeriaren lanketa DBH 4<sup>6</sup> eta Batxilergoko 2.mailan<sup>7</sup> egitea proposatzen da 2023an onartutako LOMLOEren egokitzapenean. Curriculum hauek zirriborro fasean, onartzeko prozesuan zaudenean Adi-adian Hezkuntza modulua lantzeko tarterik eskaintzen ote zuten aztertu genuen EHUko Gizarte Zientzien Didaktikako ikerlari talde batek<sup>8</sup>. Bertan baieztatzen zen LOMLOEren egokitzapenak ere *Adi-adian* moduluen oinarri diren ideak eta helburuak lantzeko espazioa eskaintzen duela nahiz eta kompetentzien arabera lan egiteari Adi-adianek indar handiagoa ematea komeni.

### **2.1.Gai gatazkatsuekin irakasleen jarrera eta ikasgeletan lantzeak duen garrantzia**

Zaila da Hezkuntza prozesua gizartean lehiari ari diren ideologietatik kanpo geratzea eta Estatuak aktiboki parte hartzen du lehia horretan. Hezkuntzak pisu politiko handia du eta boterea duen klaseak bere ideologia inposatu nahi izaten du eskola sistemaren bidez; ondorioz akatsa da gai sozialak lantzeri uko eginez eskola politikatik kanpo mantentzen saiatzea, Hezkuntzan ezinezkoa baita inguratzen gaituen errealitateari begiratu gabe lan egitea<sup>9</sup>.

---

<sup>5</sup> Irekia, EUSKO JAURLARITZA: *Eusko Jaurlaritzak Euskadiko memoria hurbilari buruzko Herenegun! Hezkuntza programaren materialak aurkeztu ditu Historia irakasgairako*, <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albiste/2018/eusko-jaurlaritzak-euskadiko-memoria-hurbilari-buruzko-herenegun-hezkuntza-programaren-materialak-aurkeztu-ditu-historia-irakasgairako/>

<sup>6</sup> 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, [https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa\\_oinarritzkoa/dekretua/20230731\\_oinarritzkoa\\_curriculum\\_dekretua\\_e\\_ZUZENDUTA.pdf](https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa_oinarritzkoa/dekretua/20230731_oinarritzkoa_curriculum_dekretua_e_ZUZENDUTA.pdf)

<sup>7</sup> 76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa,

[https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa\\_batxilergoa/dekretua/20230724\\_batxilergoa\\_curriculum\\_dekretua\\_e\\_ZUZENDUTA.pdf](https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa_batxilergoa/dekretua/20230724_batxilergoa_curriculum_dekretua_e_ZUZENDUTA.pdf)

<sup>8</sup> Maddi ELORZA INSAUSTI, Olatz ARANGUREN JUARISTI, Naiara VICENT eta Teresa CAMPOS-LOPEZ: “Un lugar para el módulo Adi-adian en la adaptación curricular de la LOMLOE en el País Vasco” In Jose Ignacio ORTEGA CERVIGÓN, Jesús Ángel SÁNCHEZ RIVERA eta Neus GONZÁLEZ MONFORT (ed.): *El curriculum de Ciencias Sociales: enseñanza-aprendizaje desde las culturas y los valores democráticos*, Bartzelona, Octaedro Editorial, 2024, <https://octaedro.com/libro/el-curriculum-de-las-ciencias-sociales-ensenanza-aprendizaje-desde-las-culturas-y-los-valores-democraticos/>

<sup>9</sup> María BORJABAD CABALLERO, Noelia FRAGA HERNÁNDEZ, Daniel Ignacio NAVARRO VILLAGRÁN, Teresa VELASCO ROSA eta Marina VILLASEÑOR LIROA: “El conflicto generado por el tratamiento de temas controversiales en el aula y su influencia en el desarrollo laboral docente” In Delfin ORTEGA SANCHEZ, Jordi CASTELLVÍ MATA eta Neus GONZÁLEZ MONFORT (ed.):

Hezitzaileak pentsa dezake neutral izateko gai dela gai politiko edo ideologikoetatik urrun mantentzen bada baina irakasleak beti ere erabakiak hartu behar dituzenez, kontzientziaz edo kontzientziarik gabe, irakaslearen ideologiak hezkuntza prozesuan eragina dauka. Ondorioz, ezinbestekoa da ikasleen sinesmen edo uste propioak zalantzan ezarriko dituen irakaskuntza mota bat praktikan jartzea, horretarako datu eta gertaera kontrastagarriak erabiliz eztabaida eta gatazken kudeaketa bultzatzeko jardueretan txertatuta, ikasleek aurreiritziak gainditu eta jarrera analitikoak eta argudio arrazionalak bereganatu ditzaten<sup>10</sup>.

Gatazka gizartearen ezaugarria da eta gizarte demokratikoan gatazka gehienek ez dute aurrez aurreko bortitzik eragiten gatazken ebazpenerako mekanismoak daudelako. Eskolek gatazkak zergatik eta nola sortzen diren eta demokratikoki nola ebatz daitezkeen irakatsi dezakete<sup>11</sup>. Irakasleek jarrera desberdinak har ditzakete gai gatazkatsuak gelan lantzearen aurrean. Zenbaiten neutraltasun baztertzailerik aplikatuko du, gai gatazkatsuak gelan lantzea eta hauei buruz eztabaidatzea eragotziz, irakasleak neutrala izan behar duela eta ikasleengan ez duela inolako eraginik izan behar argudiatuz. Beste batzuk partzialtasun baztertzailerik aplikatuko dute, baliozko jarrera bakarra aurkeztu eta ikuspuntu bakar horrekin lotuta ez dagoen informazioa baztertuz. Bestetik inpartzialtasun neutrala aplikatzen dutenak daude. Ikasleengan eraginik ez izaten saiaterik dira ideologia, sinesmen edo balore batzuk transmititzea edo garatzea familiei edo ikasleei dagokiela argudiatuz. Azkenik, inpartzialtasun konprometitua aplikatzen dutenak daude, gai gatazkatsuen inguruko beraien iritzia ematen dutenak ikasleak baldintzatzeko nahirik gabe, norbere iritzien aurkakoak edo desberdinak direnengana irekitzea proposatzen du<sup>12</sup>.

López Facal eta Santidriánek dioten bezala<sup>13</sup>, gai gatazkatsuak lantzeak argudiatzen, iritzia informazio iturri fidagarrietan edo egiaztatu daitezkeen datuetan oinarritzen eta arrazoiketa logikoa indartzen ikasteko balio du. Irakasleek gai edo gertaera garrantzitsu bat aukeratu behar dute ikasleek ikuspegi desberdinetatik aztertu eta pentsamendu kritikoa landu ahal izateko. Gelan gai gatazkatsuak lantzeak erresistentziak sortzen ditu irakasleen artean. Gai gatazkatsurik ez lantzeak segurtasuna eman diezaiokete irakasleari ikasleen aurrean baina ikasleek bizi duten

---

*Enseñar el conflicto. Perspectivas, significados y límites en la educación para una cultura democrática y la justicia social*, Madrid, Dykinson, 2024.

<sup>10</sup> Ramón LÓPEZ FACAL eta Víctor Manuel SANTIDRIÁN ARIAS: “Los “temas controversiales” en el aula”, *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 69 (2011), 8-20 or.

<sup>11</sup> *Ibid.*

<sup>12</sup> *Ibid.*

<sup>13</sup> *Ibid.*

errealitateari bizkar ematen dieten Gizarte Zientzia batzuk irakastea esan nahi du<sup>14</sup>; hiritartasunean, iraganaren ezagutzan eta orokorrean, gatazken ebazpen eta eraldaketan gabezia handiak dituzten Gizarte Zientziak.

## **2.2.Partehartzaileak**

Eskuartean dugun ikerketa txiki honen emaitzak 2023-2024 ikasturtean Donostiako Amara Berri auzoko Peñafiorida-Usandizaga BHI sare publikoko Institutuan irakasle aritu diren bi partaideren eta ikertzailearen artean egindako *Focus Group* erdi egituratutik atera dira. Bi irakasle partaideak 35 urtez azpikoak dira, 5-10 urte artean daramatzate Bigarren Hezkuntzan irakasle, bata emakumezkoa da eta bestea gizonezkoa. Ikertzailea emakumezkoa, 15 urte inguru daramatza irakaskuntza eta 45 urtetik gorakoa da.

Bi irakasleek *Espainiako eta Euskal Herriko Historia* irakasgaia irakatsi dute 2. Batxilergoan, D ereduan (euskaraz). Horretaz gain, bi irakasle horietako batek Euskal Herriko Historia hautazko irakasgaia ere irakatsi du D ereduan 1. Batxilergoan.

Ikertzailea ere Espainiako Historiako irakasle gisa aritu da Peñafiorida-Usandizaga BHI Institutuan 2. Batxilergoan, A ereduan.

## **2.3.Metodoa**

Ikasleekin saioak eta ebaluazio saioak bukatu ondoren ikertzaileak bi irakasleei proposatu zien ikerketa honetan parte hartzea, horretarako *Focus Group* erdi egituratuaren baliabidea erabiliz (galdera batzuk aurrez zehaztuta ematen dira saiora baina ondoren elkarriketan sortzen diren gai ildoak errespetatzen dira eta espazio ematen zaie).

Bi irakasle partaideak gazteak, lanbidearekin konprometituak eta irakaskuntzan 5-10 urte artean dihardutenak izanik, ezaugarri horiek zituzten irakasleen bidez irakasle belaunaldi gazteen pertzepzioa jaso nahi zen ikerketan, irakasle gazteen kasuan ikuspegi desberdin, berritzaile, irekiago eta ausartago bat egon zitekeela pentsatuz gai gatazkatsuak lantzerakoan. Hori izan da ikerketarako partaideak aukeratzeko jarraitutako irizpide nagusia.

Peñafiorida-Usandizaga BHI institutuan Batxilergoko klaseak soilik ematen dira (1 eta 2 mailak artistikoa, zientifikoa, humanistikoa eta arte eszenikoen modalitatetan). Alde horretatik interesgarria zen ikertzailearentzat, adimen eta heldutasun aldetik ikasleentzat maila egokiagoak diren aldetik (17 urtetik gorakoak dira ikasle guztiak) motibazio politikoko

---

<sup>14</sup> Emilio José DELGADO ALGARRA: “Educación para la ciudadanía en tiempos de pandemia”, *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 106 (2022), 65-70 or.

indarkeria bezalako gai gatazkatsuak ematerakoan irakasle gazteek izan dituzten pertzepzio garrantzitsuenak jaso, aztertu eta antzerako lanketak diseinatzen ari direnentzat gogoan izan beharreko zenbait ondorio ateratzea.

### 3. Emaitzak

*Focus Group*ean parte hartu duten bi irakasleen kasuan motibazio politikoko indarkeria (indarkeria politikoa) 2. Batxilergoan Unibertsitateko Sarbideko gaitegian agertzen delako landu da batez ere. Hala ere ikasleek etxean entzuna zutela zerbait eta galdera ugari egiten zituztela esan zuten. 1. batxilergoko Euskal Herriko Historia hautazko ikasgaiari, motibazio politikoko indarkeriaren gaia lantzea erabaki zuen irakasleetako batek nahiz eta kurtso hasieran ez eduki halakorik aurreikusita. Ikasleek “inork ez diela inoiz ezer esan” esaten omen zuten eta hortik irakaslearen norabide aldaketa.

Unibertsitateko Sarbide Froga egin behar ez den mailan (1. Batxilergoan) irakaslea askeago sentitu zen gaia lantzeko. Proiektu txiki baten bidez landu zuen baina ez dagoela motibazio politikoko indarkeria lantzeko material egokirik (objektiborik) azpimarratzen zuen, berak sortu behar izan zuela materiala prentsako berriak eta antzerakoak erabiliz.

Elkarrizketatutako bi irakasleek *Adi-adian* entzunez ezagutzen zuten, bazekiten biktimen testigantzak ikasgelara eramateko proiektu bat zela baina programa eta berari buruzko informazioa ez zuten zehaztasunez ezagutzen. *Herenegun* programari buruz galdetu zitzaizenean (Oraintsuko memoria 1960tik gaur egunera artekoa lantzeko programa pilotua) ez zuten ezagutzen.

Sarbide Froga egin beharreko mailetan Frankismoari lotutako gaietan (gaitegiko azken gaietan, presaka, denbora tarte gutxiagorekin) landu zutela gaia zioten. Esan behar da 2023-2024 ikasturtean salbuespen modura aurreko ikasturteetako Sarbide Frogaren eredu eta horretarako gaitegi berdina mantentzea erabaki zela baina Espainia eta Euskal Herriko Historia ikasgaiari astean 3 ordu eskainiz (aurreko ikasturteetan baino bat gutxiago). Historia eta Geografiako mintegian gaitegi osoa ematen jarraitzea erabaki zen eta ondorioz irakasleek presaka, denbora tarte nahikorik gabe aritzearen pertzepzioa izan zuten ikasturte osoan.

Bi irakasleen artean azpimarratu zuten ikasleek interes berezia erakusten dutela gaiari buruz aritzeko, baina gaitegia bukatzeko estutasuna dela eta ez zela nahi besteko denbora tartearekin lantzen. Hala ere, irakasleetako batek azpimarratu zuen ikasleak oso interesatuta ikusiz gero, denbora gehiago eskaintzen ziola motibazio politikoko indarkeria lantzeari.

Ikasleek etxean motibazio politikoko indarkeriaz urtetik urtera etxeetan gutxiago hitz egiten dutela nabarmendu zuten irakasleek, denboran urrunago geratzen delako behar bada eta beste zenbait etxetan tabua izaten jarraitzen duelako bizi izandakoagatik. Jatorriz atzerritarrak direnen kasuan ere gaia urrun geratzen zaiela gaineratzen zen baldin eta ez badute beraien jatorrizko herrialdean indarkeria politikoko egoerarik bizi izan.

Nahiz eta motibazio politikoko indarkeriak emozioekin lotura nabarmena izan, bi irakasleek zioten lanketa ez zutela emozioetatik bideratu, ez zitzaizela espazio handirik eskaintzen, batez ere ez zirelako gai sentitzen hor sor zitekeena kudeatzeko. Hala ere, ikasle bakoitzak edo bere inguruak bizi izandakoa partekatzea garrantzitsua zela esan zuten irakasleek, ikasleak nahiz eta ideologikoki oso urrun egon bata bestetik, sentitu izan dituzten emozioak (tristura edo beldurra bezalakoak) berdinak izan direla ohartzen zirelako. Irakasleak gaineratu zuen mundu anitzean bizi garela eta aniztasun hori ondoan dutela konturatzen direla ikasleak bizi izandakoa edo dakitena partekatzerakoan; zure lagunak beste iritzi edo pentsaera bat duela ohartzen dira baina lagun izaten jarraitzen dute.

Gaia lantzerakoan irakasleek bakarrik sentitzen zirela zioten, babesik gabe. Garbi zuten gaia landu beharrekoa zela baina aldi berean beldur zioten ikasleek etxean kontaktatzen zutenaren arabera sor zitekeen korapilo mediatiko eta instituzionalari.

Motibazio politikoko indarkeria lantzerakoan, ahalik eta ikuspuntu historiko objektiboena erabiltzen saiatzen zirela adierazi zuten. Ikasleek zerbait esaten bazuten ongi, batzuetan ikasle bakoitzak bizi izandakoaren arabera klasean eztabaidak sortu izan zaizkiela aitortzen zuten eta egoera horiek kudeatzeko formazio falta itzela sentitzen zutela azpimarratzen zuten; batzuetan pena ematen zuela ikasleengandik ateratzen ziren testigantza horiek hor uztea landu gabe denbora edo behar bezala lantzeko baliabide faltagatik. Bi irakasleen pertzepzioa da formazio egokia, material pedagogikoa eta ikasle bakoitzaren errealitatera egokitze tresna gehiago behar direla.

Sarri, gai gatazkatsua eta korapilatsua izaki, ikasleak ez zirela ausartzen gelakideen aurrean bere iritzia ematen azpimarratu zuten (batzuetan gelak urte horretan sortuak izaten ziren eta gelakideak ez ziren lehenagotik ezagutzen). Irakasleetako batek aukerazko lan bat eskaini zien ikasleei garai historiko hura bizi izan zuen pertsona baten ikuspegitik idazlan bat egiteko. Ariketa horretan irakasleetako batzuk motibazio politiko indarkeriaz idatzi zuten familiakoren batek bizi izandakoa oinarritzat hartuz.



Bi irakasleek oso positiboki baloratzen zuten ikasleek etxekoek kontatutakoak klaseetan adieraztea, ikasketa prozesua esanguratsuagoa bihurtzen zuela argudiatuz. Irakasleetako batek bere familiako anekdotak ere kontatzen dituela aitortu zuen, ikasleei gaia gerturatzeko eta irakasgaiari zentzua emateko (norberak bizi izandakoa kontatzean).

Orokorrean motibazio politikoko indarkeria ikasgelara eramatean ez zen gatazkaren ikuspegitik landu, ez zen gatazkaren dekonstrukziorik egin, ez ziren gatazka osatu dezaketen elementuak (deshumanizazioa, polarizazioa...) identifikatu eta landu.

Ikertzaileak gaineratu zuen Bakeola elkarteak, *Adi-adianeko* hasierako saioa ematerakoan, ikasleek egunerokoan bizi dituzten gatazka txiki horiek identifikatzetik eta horiek kudeatzeko erabiltzen dituzten estrategietatik abiatzen dela (metodologia sozioafektiboa). Ikerketan parte hartu zuten irakasleek egokitzen hartu zuten ikuspuntu hori baina inoiz horretan horrela ez zutela pentsatu ere aitortuz. Onartzen zen gatazka txikiago horietatik abiatzea egokia izan daitekeela gatazka handiago horietara gerturatzeko eta alderantziz, gatazka handiago horien dinamika ezagutzeak norbere gatazkek modu egokiagoan kudeatzeko baliabideak eskain ditzakeela gaia modu egokian landuz gero.

Motibazio politikoko indarkeria lantzerakoan kontzeptuen erabilerak duen garrantzia ere azpimarratu zuten irakasleek eta kontzeptu horien trataerak lankideen artean sor dezakeen gatazka: terrorismo kontzeptua erabili edo ez; indarkeria politikoa, motibazio politikoko indarkeria kontzeptuek zer adierazten duten, egokiak ote diren izendatu nahi dena izendatzeko... Ikerketako partaide diren irakasleek ez dute terrorismo hitza erabiltzen, kontzeptua erabiltzerakoan subjektibitate bat ematen zaiola gaiari argudiatuz. Hala ere ikasleek terrorismo kontzeptua erabili nahi badute erabiltzen uzten zaiela baieztatu zuten. Errelatoaren gatazka aipatzen zuten, terrorismo hitza erabiltzeak edo ez erabiltzeak bando batean edo bestean kokatzen zaituela oraindik horrela behar ez lukeenean eta behar bada gauzak freskoegi daudela oraindik azpimarratuz.

Batxilergoko ikasgeletan testuinguru historikoa ikusi ondoren lantzen da motibazio politikoko indarkeriaren gaia. Irakasleek zioten Historia oraina ulertzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko tresnatzat zutela eta ondorioz gaia beti testuinguru historikoaren ondotik landu izan dutela, ezinbestekotzat jotzen zuten hala egitea. Klaseetan sarri ikasleei oinarri historikorik gabeko izugarrikeriak entzuten zaizkiela adierazi zuten irakasleek eta testuinguru historikoa behar bezala lantzea edo testigantzetan biktimen jatorri desberdintasuna zaintzea horretarako lagungarri izan zitezkeela. Ikasle gehienek 2. Batxilergora iristen direnean ez dakitela ezer

nabarmentzen zen eta ondorioz ezinbestekoa zela ikasleen ikuspuntua garatzeko testuinguru historiko egoki bat eskaintzea.

Irakasleetako batek zioen ikasleak harrিতuta geratzen direla Trantsizio garaian egon zen bortizkeria politikoa ezagutzen dutenean: KKAA, ETA m, ETA pm, Batallon Vasco Español, Triple A, beranduago GAL, FRAP, GRAPO, TRIL, MIL, Karlisten taldea... Horretaz gain ETAk 53 urte iraun bazituen eboluzio bat izan zuela gaineratzen zuen irakasleak, ez dela ETA bakarra existitu, eboluzio bat izan zuela eta hori ikasleei azaltzen ez bazaie partidista izatea dela eta gertatutakoa deshumanizatzen ari zarela (batzuei izatez pistolak gustatu egiten zaizkiela bezalako mezuak zabalduz, nahiz eta talde bakoitzaren barruan denetarik egongo zela aitortu).

Bi irakasleek azpimarratu zuten beraien Graduko ikasketetan ez zutela motibazio politikoko indarkeriaren aldia asko landu eta horrek ere irakasle bezala aritzerakoan gabezia handiak sortzen dituela.

Peñaflorida-Usandizaga BHI ikastetxean ez da *Adi-adian* edo *Herenegun!* bezalako programarik landu. Ikerketako partaideek zioten ez zutela inolako baliabiderik jaso gaia lantzeko helduleku bezala. Ikertzaileak esan zien Gogora institututik gutun bat jaso zela (2023ko azaroaren 14an jaso genuen, ikasturtea hasi eta bi hilabete ingurura). Gutun horren bidez *Herenegun!* programan garatutako unitate didaktikoetara sarbidea ematen zen eta gaiaren lanketa osatzeko testigantzen eta dokumentalak zeuden web orrialderako sarbidea. Gutuna zuzendaritzara bidali zen eta ondoren zuzendaritzakoek irakasle guztien artean banatu zuten digitalki. Bi irakasleak ez ziren gutunaz jabetu.

EU | ES | EN

BILATU KONTAKTUA

euskadi.eus

**gogora** | Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua

Gogora | Proiektuak | Dokumentuak | Dirulaguntzak | Albisteak  
Kontaktua | Memoria hurbila ikastetxeentzako



**Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen memoria**



**Dokumentalak**




**Herenegun**



## 1. **Irudia.** Gogora institutuak sarbidea emandako web orria.

Irakasleetako batek gaiarekin lotutako baliabide bezala, memoriaren mapa antzerako bat aipatu zuen, ETaren hilketak non gertatu ziren adierazten duen mapa litzateke (ikus 2.irudia). Bi irakasleek baieztatu zuten ez zutela inolako formakuntzarik jaso iragan traumatikoaren edo biolentzia politikoaren gaia lantzeko. Irakasleentzat erosoena gai hau klasean ukitu ere ez egitea litzatekeela (indarrean egon den curriculumean gertaera historikoak teorikoki lantzea baino ez da agertzen), ikasleei etxean apunteetatik begiratzeko esatea nahikoa izan daitekeela. Bizitza konplikatzeke modu bat izan zitekeela adierazten zuten baina biek iragan traumatikoaren edo motibazio politikoko indarkeriaren gaia landu beharraren ardura sentitzen zuten Batxilergoan Historiako irakasle diren aldetik.



## 2. Irudia. Covite elkarteak sortutako Mapa del Terror<sup>15</sup>.

Peñaflorida-Usandizaga BHIko ikasleen kasuan ez dute ikasle guztiak parte hartu dezaketen asanbladarik. Zuzendaritzak deitutako bileretan gelako ordezkariak parte hartzen dute baina ez dute parte-hartze zuzena izan dezaketen asanblada egitura horizontalik. Ondorioz ez dute beraien iritziak argudiatuz eztabaidatzeko espaziorik, gatazkak kudeatzeko, ebazteko eta horien eraldaketa lantzeko espazio errealik.

Oztopoak oztopo, ikasleei entzuteko eta gaia lantzeko espazio bat zabaltzeko izandako prestutasuna baloratu zituzten indargunetzat irakasleek, orokorrean ikasleek seriotasunez eta interesez hartu zutela gaia. Nabarmena zela diote ETA hitza entzun orduko arreta jartzen zutela baina aldi berean tabua izaten jarraitzen duela gertatutakoak.

Indartzeko atalak aipatzerakoan dakitenen laguntza jasotzea azpimarratu zuten irakasleek. Formazioa jasotzerakoan adituen ekarpena jasotzeaz gain, irakasleen artean pertzepzioak

<sup>15</sup> <https://mapadelterror.com/eu/>

konpartitzeko espazio bat irekitzeko beharra ere azpimarratu zuten. Batzuetan indarkeria politikoaren gaia lantzean urduri aritzen dela aitortzen zuten irakasleetako batek. Irakasle bakoitzak bere pentsaera propioa duela esaten zuten, nahiz eta ikasleekin aritzean hori mugatzen saiatu. Nola izan daiteke objektibo, nola kudeatu norbere emozio eta bizipenak gaia lantzerakoan... horrek beldurra sortzen duela gaineratzen zuten, norbere konfort espaziotik kanpo hau lantzea ez zela erraza. Historiako mintegian bertan ez dela gaia atera izan gaineratu zuten, pentsaera eta bizipen desberdineko jendea dagoela nabaritzen delako eta ezin delako jakin zer gerta daitekeen.

Halako gaiak ikasgelan lantzerakoan babestua sentitzearen garrantzia azpimarratu zuten (gaia lantzean arazoak sortuz gero ez zutela babes handirik jasoko uste zuten). Gaur egun sare sozialekin oso arriskutsua bihurtu dela halako gaietan aritzea gehitu zuten, nahikoa dela ikasleren baten gaizki ulertua sarean zabaldu eta arazoak sortzeko. Zuzendaritza eta instituzioen babesak sendoagoa behar lukeela argudiatzen zuten bi partaideek.

Biek zioten gustura jasoko luketela formakuntza bat, espazio bat irekiz irakasleen artean hitz egiteko, azpimarratuz denak errespetatu beharreko lekua beharko lukeela izan; helduak bezala hitz egiteko lekua eta ez inorekin haserretzekoa.

Orokorrean gaiak aritzea oso interesgarria egin zaiela adierazi zuten bi partaide gazteek, nahiz eta Batxilergoko modalitateen arabera ikasleen erantzunak aldatu. Ikasleek jakiteko nahi eta behar handi bat dutela azpimarratzen zuten eta Historiako irakasle garen aldetik gure ardura ere badela ikasleei beraien ezagutzarako eskubidea betetzen laguntzea.

#### **4. Eztabaida.**

Batxilergoko curriculumaren arabera<sup>16</sup>, 2. Batxilergoko Espainiako eta Euskal Herriko Historia ikasgaiko konpetentzia espezifikoetan agertzen da ikasleek ikasgai hau landu ondoren, Espainiako eta Euskal Herriko gizarteek Aro garaikidean zehar izan dituzten aldaketak eta jarraitutasunak deskribatzeko eta aztertze gaitasuna izan behar dutela, bertako biztanleriaren eboluzioa eta horrek bizitza-mailekin eta moduekin, lan-baldintzekin, gizarte-gatazkekin eta langile-mugimenduekin duten lotura kontuan hartuz, gaur egungo gizarte-aniztasunaz jabetzeko, hartu diren neurrien irismena balioesteko, eta berdintasunerako, ongizaterako, justiziarako eta gizarte-kohesiorako aurrerapausoak eta mugak ulertzeko. Hala ere ikerketan parte hartu duten irakasleek motibazio politikoko indarkeria batez ere Unibertsitatera Sartzeko frogaren gaitegian zegoelako eman zutela aitortu zuten. Curriculumak zehazten duenaren

---

<sup>16</sup> 76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumak zehaztu...

(gaitasunetan oinarritutako Hezkuntza) eta praktikan egiten denaren artean desberdintasun handia dagoela nabarmena da.

Horretaz gain aipatutako curriculumean ez da oso ongi zehazten ikasleek nola, zein metodologiaren bidez eskuratu behar duten gaitasun hori. López Facal eta Santidriánek esan bezala<sup>17</sup>, gai gatazkatsuak lantzeak argudiatzen, iritziak informazio iturri fidagarrietan edo egiaztatu daitezkeen datuetan oinarritzen edo arrazoiketa logikoa indartzen ikasteko balio du eta horretarako irakasleek gai edo gertaera garrantzitsu bat aukeratu behar dute ikasleek ikuspegi desberdinetatik aztertu eta pentsamendu kritikoa landu ahal izateko. Ikuspegi honetan irakaslea da ikasleek gaitasuna aktiboki eskuratu ahal izateko testuinguru egokia diseinatu eta gidatzen duena; ikaslea da bere ikaskuntza prozesua bideratzen duen protagonista. Hala ere 2. Batxilergoko Historia ikasgaia oraindik ere ezagutza bankalean oinarritzen da batez ere, klase magistraletan eta ezagutza teorikoaren bidez (memorizazioan oinarritutako ikaskuntza) Unibertsitaterako Sarbide Froga gainditzera mugatzen da (ikasleek gaitasunak eskuratzea zokoratuz).

Bestetik, ikasleek interes, motibazio eta arreta handia eskaintzen dioten gaia da indarkeria politikoarena. Ikasleek onartzen dute ezagutza handirik ez dutela eta etxeetan tabu izaera izaten jarraitzen duen gaia dela. Hezkuntzak pisu politiko handia du eta boterea duen klaseak bere ideologia inposatu nahi izaten du eskola sistemaren bidez. Baina gai gatazkatsuen lanketa gehiegi zehaztu gabe dagoenean edo errelatoari buruzko borroka gainditu gabe dagoenean arriskutsua bihurtzen da Hezkuntza pentsaera jakin bat bultzatu eta beste bat baztertzeko erabiltzea. Akatsa da gai sozialak lantzeri uko eginez eskola politikatik kanpo mantentzen saiatzea, Hezkuntzan ezinezkoa baita errealitateari begiratu gabe lan egitea<sup>18</sup>. Irakasleak beti erabakiak hartu behar ditu eta irakaslearen ideologiak hezkuntza prozesuan eragina dauka. Ondorioz, ezinbestekoa da ikasleen sinesmen edo uste propioak zalantzan ezarriko dituen irakaskuntza mota bat praktikan jartzea. Horretarako eztabaida eta gatazken kudeaketa bultzatzeko jardueretan txertatutako datu eta gertaera kontrastagarriak erabili behar dira, ikasleek aurreiritziak gainditu eta jarrera analitikoak eta argudio arrazionalak bereganatu ditzaten<sup>19</sup>.

---

<sup>17</sup> Ramón LÓPEZ FACAL eta Victor Manuel SANTIDRIÁN ARIAS: “Los “temas controversiales” ...

<sup>18</sup> María BORJABAD CABALLERO, Noelia FRAGA HERNÁNDEZ, Daniel Ignacio NAVARRO VILLAGRÁN, Teresa VELASCO ROSA eta Marina VILLASEÑOR LIROA: “El conflicto generado por el tratamiento ...

<sup>19</sup> Ramón LÓPEZ FACAL eta Victor Manuel SANTIDRIÁN ARIAS: “Los “temas controversiales” ...

Eusko Jaurlaritzaren aldetik *Adi-adian* eta *Herenegun!* bezalako hezkuntza moduluak garatu dira. 2013-2017 legegintzaldian abiatu zen *Adi-adian* programa. 2017- 2020 legegintzaldian proiektua berriro eta bultzatu egin zen eta berrikuntza bezala unibertsitateko ikasleei biktimen testigantzak entzutea eskaini zitzaion. Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek lantzen dute *Adi-adian* unibertsitatean eta irakasle izateko Bigarren Hezkuntzako Masterrean Gizarte Zientzien alorretik espezializatzen direnek ere parte hartzen dute hezkuntza moduluan. Hala ere azpimarratzekoa da ikerketan parte hartu duten irakasleak gazteak izanik ez dutela honen berririk izan eta ez dutela antzerako formakuntzarik jaso. *Herenegun!* hezkuntza moduluari dagokionez, oraindik ere esperientzia pilotoak egiten jarraitzen dute. Egindako lana interesgarria da Batxilergoko mailetan lantzeko baina hezkuntza modulu bezala ez dago Batxilergorako onartutako curriculum berrira<sup>20</sup>, gaitasunetan oinarritutako Hezkuntzara eta metodologia aktiboen erabilerara egokituta.

Belaunaldi berriek kalitatezko ezagutza bat izatea eta gaiarekin lotuta egon daitezkeen gaitasunak eskuratzea nahi bada ezinbestekoa da instituzioetatik egiten ari diren lanarekin jarraitzea ezin baita motibazio politiko indarkeriaren lanketa irakasle, zentro eta zuzendaritza bakoitzaren araberakoa soilik izaten utzi. Ikerketako partaideek azpimarratu duten bezala bidean bakarrik sentitzen dira, gai zaugarria izateaz gain beldurtu egiten ditu zenbait jarduerak edo iritzik izan dezaketen oihartzunak; gaia lantzerakoan erabili beharreko kontzeptuen inguruko gutxieneko adostasun bat izatea ere lagungarri litzateke . Ezinbestekoa da ikasgeletan gaia lantzeko denbora eta espazio gehiago uztea (unibertsitaterako sarbide frogak ez hainbeste pisu izatea) eta aldi berean *Herenegun!* bezalako esperientzia pilotuak garatzerakoan parte hartu duten zentroetako irakasleei eskaini izan zaien formakuntza interesa izan dezaketen Batxilergoko irakasleei modu orokorrean eskaintzea.

Irakasleek esandakoetatik atera daitezkeen beste ondorioetako bat familien informazio transmisioa eteten ari dela da baina ikasleek familian gertatutakoari garrantzia handia ematen diotela. EHUko Hezkuntza Fakultatean, Gizarte Zientzien Didaktika ikasgaietan, irakasle batzuk *Adi-adian* modulua beraiek garatutako proiektu zabalago baten baitan txertatzen dute eta proiektu horren ataletako bat norberaren familiako eta herriko informazioa jasotzea da. Interesgarria izango litzateke 2. Batxilergoan ere antzerako proiektu bat garatzea baina horretarako Batxilergoko curriculum arautzen duen 76/2023 dekretuari indar gehiago ematea eta Unibertsitaterako Sarbide frogaren eredia aldatzea ezinbestekoa da.

---

<sup>20</sup> 76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculum zehaztu eta ...

Honetaz gain, Adi-adian bezalako hezkuntza moduluen proposamena ikasleei indarkeriak eta giza eskubideen urraketen sufrimenduari bizikidetzaz sustatuz erantzun dioten pertsonen gogoetak gerturatzea da, ikus-entzunezko edo aurrez aurreko testigantza bidez<sup>21</sup>. Bizipen eta gogoeta hauek emozioekin lotura zuzena dute; ez da zurruna, objektiboa eta urruna den gai bat eta ikasleek enpatia bezalako beste hainbat gaitasun lantzeko baliagarri izan daiteke. Hala ere, ikerketan parte hartu duten irakasleen adierazpenetan gaia objektiboki lantzeko beharra agertzen zen nahiz eta zaila dela onartu. Eskolek gatazkak zergatik eta nola sortzen diren eta demokratikoki nola ebatzi daitezkeen irakasterakoan, irakasleek har ditzaketan jarreraren artean inpartzialtasun konprometitua aipatu dugu<sup>22</sup> eta irakasle gazte hauek jarrera horretara gerturatzen direla esan genezake. Hala ere, beraiekin izandako elkarrizketan azpimarratu duten bezala, motibazio politikoko indarkeria ikasgeletan lantzeko formakuntza jasotzeak ikasgelan erosoago, babestuago eta kontzienteago sentitzen lagun ditzake.

Ondorioz, ezinbestekoa da EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko erakundeak motibazio politikoko indarkeria ikasgeletan modu egokian lantzeko egiten ari diren ahalegina sendotzen jarraitzea. Ezin da ahaztu ahalegin hori egiteak beste garrantzia duela ondoren garatu diren hezkuntza moduluak egunero ikasleekin lanean ari diren irakasleen eskuetara helarazteak. Hein berean ezinbestekoa da gaia ikasleen gaitasunak garatzera bideratzea, lantzerakoan Bakerako Hezkuntzaren dinamiketan ere oinarritzea eta ikasleak beraien hezkuntza prozesuaren protagonista izango direla bermatzea.

---

<sup>21</sup> Lehendakaritza EUSKO JAURLARITZA: *Adi-adian Hezkuntza modulua...*

<sup>22</sup> Ramón LÓPEZ FACAL eta Victor Manuel SANTIDRIÁN ARIAS: “Los “temas controversiales” ...